

HANNAN, A. & SILVER, H. (2005)

La innovación en la enseñanza superior. Madril: Narcea.

Gaur egun Unibertsitate arloan irakaskuntza eta ikaskuntzan aplikatutako berrikuntzak indar handiz sartzen ari dira eta dagoeneko errealitate garrantzitsua suposatzen dute. Berrikuntza horien guztien sarrerak, erakundeen baitan ere, aldaketa adierazgarria suposatzen du. Ohiko klase majistralak alde batera geratzen ari dira, eta orain beste metodologia batzuk aplikatzen ari dira; metodologia hauek nagusiki ikaslearen figuran zentratzen dira eta gehienetan teknologia berrien aplikazioaren eragin garbia agertzen da. Zein da berrikuntza horiek guztiak aplikatzearen arrazoa? Zergatik Unibertsitate arloan kokatzen diren erakundeek eta horien barruan lan egiten duten profesionalek irakaskuntza-ikaskuntza metodo berriak aplikatzearen aldeko apostua egiten dute? Zer suposatzen du berrikuntzak? Honelako galderak erantzutea izango da Hannan eta Silverrek garatutako ikerketa lanaren helburu nagusienetarikoa bat. Bi autore hauek, liburuan zehar, berrikuntzaren izaera bera aztertzen saiatuko dira, baita berrikuntza aurrera eramateak bidean aurki ditzakeen oztopo edo presioa ere.

Aipatutako autoreak 15 unibertsitate britaniarretan egindako ikerketa batetik abiatuko dira liburuan zehar aurkituko ditugun planteamenduak aurkezteko.

Beraz, liburu hau laguntza handia suposa dezake unibertsitate arloan lan egiten dugun guztiontzat. Obra irakurtzen dugun neurrian berrikuntzaren garrantziaz ohartuko gara; azken finean, gizarte mailan gertatzen diren aldaketa guztiak kontuan hartzen baditugu, etengabe garatzen ari diren aurrerapen teknologiko guztiak aztertzen baditugu, erraz ikusiko dugu gure

jardueran ere horien guztien eragina erabakiorra izango dela, horien ezagutza eta aplikazioak gure lan egiteko modua aldatuko duelarik. Lehen adierazi dugun moduan, gaur egun ikaslea oinarriztat hartzen duten metodologiek ezin dute baztertu ikasle horiek beren eguneroko bizitzan erakusten dituzten behar edo interes desberdinak; horien artean, zalantzarik gabe, teknologia berriekiko interesa ere agertuko zaigu. Horren ondorioz, beraien interes hori aprobeztatu nahi izateak gure eguneroko jardueran metodologia berriak aplikatzera behartuko gaitu, horien erabilpen egokiak aprendizai esanguratsuagoa lortzera eraman baigaitzake.

Igor Camino

BENITO, A. & CRUZ, A. (1998)

Nuevas claves para la Docencia Universitaria en el Espacio Europeo de Educación Superior. Madrid. Narcea.

Liburu honek izaera praktikoa du goitik behera. Izan ere, Unibertsitateko irakaskuntza/ikaskuntza jardunean datozen alaketak ikuspegi teoriko soiletik aztertu ordez, autoreek irakasleei tresnak ematen dizkiete geletan egunero aurrera eramaten duten lana moldatzeko eta hobetzeko. Zentzu horretan, irakurleak hamaika adibide zehatz eta aholku aurkituko ditu orriotan.

Liburuaren lehen bi atalek hartzen dute zatirik handiena, bai kuantitatiboki baita kualitatiboki ere. Bi atal horietan Unibertsitatera etorriko den ikuspegi berriaren elementuak azaltzen dituzte, hala nola, *Metodologia aktiboak* eta *Ikaslearen jarraipen akademikoa*. Atal horiek oso modu didaktikoan azaltzen dira eta, autoreek, bide ugari azaltzen dizkigute atal horien atzean dauden ideia teorikoak praktikara eraman ahal izateko.

Horrela, alde batetik, ikaskuntza kooperatiboa, arazoetan oinarritutako ikaskuntza eta kasu azterketa nola gauzatu daitekeen ikus dezakegu. Horretarako, hainbat teknika eta metodoen aurkezpena egiten da, eta, horrekin batera, errealitatetik bertatik ateratako zenbait adibide agertzen zaizkigu. Beste aldetik, eta metodologia aktiboaren atalarekin guztiz lotuta taldearen jarraipen akademikoan irakaslearen eta ikaslearen arteko komunikazioa zer nolako garrantzia duen azpimarratzen da, baita eta hori era egokian bideratzeko aholkuak ere. Zentzu horretan, zinez, eskertzekoa da egileek egiten duten ahalegina liburua ahalik eta erabilgarrien eta ulerterrazen bihurtzeko.

Ikaskuntza/irakaskuntza atalen ondoren ebaluazioaren atal oso bat dago. Bertan, gaitasunen ebaluazio nola egin behar den zehazten da, baita horretan guztian irakasleak duen funtzioa ere.

Ondoren Teknologia Berrien erabileraren inguruko hainbat aholku agertzen dira, eta bukatzeko, eredu berri honetan ikerketak hartu beharko lukeen zentzuaren gaineko iritzia plazaratzen dute egileek.

Asier Huegun

KARMILOFF, K. & KARMILOFF-SMITH, A. (2005)

Hacia el lenguaje. Madril: Morata.

Gauza asko egin ditzakete ama-alabek elkarrekin: lan egin, bidaia-tu... baina ez da ohikoa elkarrekin liburu bat idaztea. Hauxe da aipatuko dugun liburuaren egoera: Annete Karmiloff-Smith amak eta bere alaba Kyra-k liburu interesgarria idatzi dute hizkuntzaren jabekuntzari buruzkoa. Biak eremu honetan adituak eta unibertsitate-ikertzaileak dira eta, gainera, Karmiloff-Smith-en teoriak dezente zabalduak dira munduan zehar.

Goraipatu nahi dugun liburu honetan haur jaioberriak hizkuntza nola bereganatzen duen azaltzen da. Hizketan ez jakitetik hitzun izatera dauden gorabeherak aztertzen dira. Azalpen zabala eta xehetasun ugari ematen dira hain esparru zail eta konplexu honi buruz. Gai ugari jorratzen ditu misterio honen inguruan: hizketaren ikerketetarako metodoak, jaio aurretiko hizkuntzarekiko ikerketak, teknologia berrien ekarpenak, lehen hitzen sorrera, garunaren garrantzia mintzairan, gramatikaren agerpena, etab.

Eskertu beharrekoa da, maiz ez bezala, kasu honetan azalpen ulerterrazak ematen direla, sakontasunik galdu gabe. Liburuaren zortzi kapituluetan mami handiko argibideak azaltzen dira eta mundu mailako aditu nagusienek ekarpenen laburpenak ere ederki bilduta daude. Ez da, beraz, azaleko lana. Hala ere, beti era ulergarrian eta adibidez ondo hornituta. Bibliografia osatua du atzealdean, itzal handiko ikertzaileak bertan ageri direla.

Ugari izanik umearen hizkuntza-jabekuntzaz dauden liburuak, ez gaitu harritu behar badirela zenbait kapitulu beste liburu askotan ere landu edo ageri direnak. Beraz, esparru honetan profesionala den batek eduki aski ezagunak ere topatuko ditu. Hala ere, gomendagarri jotzen dugu liburu honen irakurketa, beti ere ekarpen berriak ere biltzen baitira. Bereziki azpimarratu nahi genuke «Hizkuntzaren bilakaera ezohizkoa» ri buruzko atala. Bertan, ume gorren eta itsuen hizkuntzaren jabekuntzaz hitz egiten da, Williams eta Down sindromedunenak, etab. Alegia, hizkuntzaren zenbait patologiaz ere argibide batzuk ematen dira, nahiz eta ez den propio patologiaz diharduen liburua.

Euskal irakurleon ikuspegitik ezer kritikatzekotan, euskaraz ez topatu izana da eta, ildo horretatik, gaztele-raz idatzitako liburu honetako adibide gehienak ingelesez agertzen direla erantsi beharra dago, nahiz eta gaztele-razatuak izan horietako asko. Ingelesezko ilustrazio hauek oztopa litzakete lehen aipaturiko irakurgarritasuna.

Liburu honetan ematen diren argibideak hizkuntzaren jabekuntzaren esparruan diharduguentzako guztiz berriak ez badira ere, jaio berritatik zortzi urte bitarteko umee-kin lanean aritzen direnentzako (maisu-maistrak, e.a.) guztiz gomendagarria ikusten dugu, modu erraz, osatu eta laburtuan azalpen mardula egiten baitu. Ea ama-alabok beste libururik eskaintzen di-guten aurrerantzean!

Iñaki Pikabea

GIMENO SACRISTÁN (2005)

La educación que aún es posible. Madril: Morata.

Egileak, hezkuntzari egiten zaion eskaera zabalaren eta eskatzailearen kontent ezintasunean kokatzen du berak egindako *Oraindik posible den hezkuntza* saiakera lana. Lan honen bidez, eskaera eta eskaintzaren desore-ka honetan oraindik etorkizunean hezkuntzak aukerak badituela uste duela-ko irekitzen digu atea.

Etorkizunean hezkuntza berraurkitzearen aukeran sinisteak gaur egun-go informazio gizartera eta merkatuaren zatiketak sorturiko egoerara mur-giltzeko giltzak izatea suposatuko du. Testuinguru sozial eta kultural honetan, eskolaren eginkizuna aztertzen du. Era honetara informazio gizar-teak sortzen dituen beharrak erronka bezala hartuz eta hezkuntza praktikak az-tertuz, hezkuntza arrazional eta garatu batean pentsatzeko hainbat arrazoi agerira atera ditu.

Azterketa hau aurkezteko, liburua hiru atal nagusitan banatzen digu: le-henengoa, eredu hezitzailea izateko gizar-tearen eta kulturaren ezaugarri orokorrak; bigarrenak, gogoetara bideratzen duen galdera du goiburutzat, hau da, zein tresnarekin heltzen dira gure ikasleak informazio gizar-tearen atarira? eta hirugarrena, subjektuaren ikuspuntutik, ikaskuntza esangura-tsua eta baliagarria izateko hezkuntza proiektu bat giltzatu beharra planteatzen du.

Bukatzeko, hezkuntzarengan uste osoa izateak eta gure aurrean ditun- gun erronkei aurre egiteko asmakizun berriak egin beharrik ez dagoela esan nahi digu egileak eta aldi berean gogorarazi, eskola ez dagoela baka- rrik eginkizun honetan, alegia, familiak, eragileak, hedabideak...honetan inplikaturik daudela. Nolabait, eguneroko eginetik eta ekinetik ateratako

jardun egokiak hobetzeko oinarritzat hartzea da egileak igorri nahi digun mezu nagusia.

Olaia Jimenez Arrieta

GEE, J.P. (2005)

La ideología de los Discursos. Lingüística social y alfabetizaciones. Madril: Morata.

James Paul Gee egileak, AEBeko Wisconsin-Madison Unibertsitateko Curriculuma eta Instrukzioa Saileko *Tashia Mordridge* katedradunak idazten du liburua eta honen itzulpena Pablo Manzanok aurkezten digu. Egilearen esanetan, lan hau Soziologia, Hizkuntzalaritza, Pedagogia, Psikologia, Antropologia, Historia, Literatura eta Filosofia ikasleentzako zein jakintza arlo hauetako espezialistentzako ekarpen garrantzitsuak eskaintzen dituela dio.

Egileak, diziplinar-teko ikuspegitik aurkezten ditu batez ere hizkuntza, alfabetizazioa eta honen historia, diskurtsoaren analisiaren jatorria eta adimenaren eta esanahiaren gizarte teoriak.

Lan honen muinean, «Diskurtsoen» teoria esanguratsuak garatzen ditu, alegia, portatzeko, elkarrekintzarako, baloratzeko, pentsatzeko, sinisteko, hitz egiteko, idazteko eta irakurtzeko formak bezala azalduz. Forma hauek bakoitzak betetzen duen rolaren arabera izango dira. Honen haritik, Diskurtsoak pertsona bakoitzak munduaren aurrean egoteko dituen eratzat aurkezten dizkigu, hots, bizierak; beraz, gizartekoak eta gizartearen historiaren atalak dira. Pertsona bakoitza Diskurtso aunitzen jabe da eta hauek, pertsonaren identitate ezberdinen ikur dira. Finean, Diskurtsoak hizkuntza baino gehiago besarkatzen duela laburtuko nuke.

Liburuaren muinaren zutabeetako den hizkuntzaren unibertsioan murgiltzen da bete-betean eta aldi berean beste hainbat alderdirekin lotzen du, hala nola: giza harremanak, eredu kulturalak, boterea eta politika, bizipe-nei buruzko ikuspegiak, balioak eta jarrerak, eta nola ez, hauek kokatzen diren lekuak eta mundua. Aurkezten digun teoria aztertzeko, garrantzia berezia ematen die erkidegoko kultura arteko harremanei eta eskola erakunde-eei, analisirako estrategia ezberdinak erabili dituelarik.

Azkenik zehaztasun gehiago eskaintzearren, egileak hiru helburu lortu nahi izan ditu lan honekin: *bat*, irakurleei hizkuntzaren ikuspegi soziokulturalen eta alfabetizazioaren ikusmira orokorra eskaintzea; *bi*, «gizartean darabil-gun hizkuntzaren» analisirako estilo zehatza aurkeztea eta *hiru*, Diskurtsoen ingurumarian gorpuztutako hizkuntzaren eta alfabetizazioaren teoria egitea.

Olaia Jimenez Arrieta

ALONSO TAPIA, J. (2005)

Motivar en la escuela, motivar en la familia. Madril: Narcea.

Liburuaren izenburua bera erabat adierazgarria da eta horixe bera aurkituko dugu bertan: irakasleek zer egin dezakete ikasleek irakasgaiak gainditu ez ezik ikasteko ere? zer egin eskola lanak ekiditeko joera bide eman-korretatik zuzentzeko? eta beste hainbeste gurasoei zuzenduta, seme-alaben ikasteko nahia nola sustatu? nola lagundu ikasteko prozesuan, interesgarria izan dadin? funtsean, irakasle zein guraso izan, nola motibatu gazteak ikasteko eta ibilbide horretan ematen diren gorabeherak gainditzen nola lagundu.

Ondo egituratutako liburu honek ederki uztartzen ditu gaiak behar duen sakontasuna eta, gurasoei begira batik bat, ulertzeko moduko lexikoa, arazorik ez sortzeko ulertze mailan. Liburu tinkoa dela esango nuke eta irakasleari ondo etorriko zaio egitura, kasuistikak, bibliografia eta abar; baina beste irakurle mota hurbilduko zaio: praktikotasunari begira kasu zehatza konpondu nahian dabilen gurasoarena. Batak zein besteak (delako «recetario» baten aurrean ez gaudela jakina) badute euren jakin-mina non ase.

Bi zati ditu: lehenengoan interes eta esfortzuaren baldintzapen pertsonalak aztertzen dira eta bigarrenean inguruarenak; aurretik, sarrera gisa, abiapuntuaren inguruan jardungo du: zer ulertzen dugun motibazioaz, gazteak zerk motibatzen ditu jakiteko nondik hasi, erreferentzia-puntu batzuk...

Maila pertsonalean oinarritutako zatiak hiru atal ditu, oso adierazgarriak diren galdera bezala planteatutako izenburuekin: «Zergatik egin behar dut nire lana?» (2. atala); «Nire lana ahalko dut egin eta bilatzen dudana lortu?» (3. atala); «Zein erataria aldatzen da motibazioa eskolaratze prozesuak aurrera egin ahala?» (4. atala). Espero zitekeenez, atal bakoitzean sakonduko du galderak adierazitakoan, irudi argigarriak eta eskema bateratuak erabiliz, ekintzak deskribatuz, arazoak identifikatuz, oinarrian dauden arrazoiak eta ondorioak azaleratzen.

Bigarren zatia bi atalekin osaturik dago: lehendabizikoa (5. atala) irakasleei zuzenduta dago «Zer egin dezakegu irakasleok motibazioa errazteko?», eta 6. atalean galdera bera, baina oraingoan gurasoei zuzenduta «Zer egin dezakegu gurasook motibazioa errazteko?». Ezinbestean eta ikaste-prozesua nagusiki ematen den testuingurua kontutan hartuz, bosgarren atalak luzera handiagoa du, eskola inguruko kasuistika aberatsaren isla, gurasoei zuzendutakoan bi azpiatal baino egongo ez dena: «Nola lortu nire seme-alabari ikastea gustatzea?» eta «Zer egin eta zer, ez nire seme edo alaba motibaziorik gabe badago?».

Zazpigarren atal motz bat (lau orrialde baino ez) eskaintzen digu ere, «laburpen eta ondorio gisa» eta liburuaren ezaugarria izan dena azaltzen da berriro hemen: zentzuzko galderak, funtsezko iradokizunak, halaberharrezko gogoetak, beste eragile (handi) batzuk gure kontrolpean ez egonda tinkotasunez aritzeko beharraz ohartaraztea... bideak zabaltzea, finean.

Biziki gomendagarria motibazioarena gertuko arazoa izanez gero. Ziur egon gogoetarako aukera (nola dauden gazteak, nola jokutzen dugun —irakasle zein guraso—, zer egin dezakegun, zeintzuekin batera lan egin, temati izatearen garrantzia...) emango digula eta —kasuak kasu, norberari arazoak eragiten dion neurrian— lagungarria izan daitekeela zalantzarik ez izan.

K. Burgoa

LÓPEZ NOGUERO, F. (2005)

Metodología participativa en la Enseñanza Universitaria. Madril: Narcea.

Liburuaren sarreratik Fernando López-ek agerian uzten du, bere ibilbide pertsonalean oinarriturik, irakats egoeratan nagusitutako ohiko magistral erak zein herren gelditzen diren irakaskuntza maila guztietan; nerabezaroan beste irakasteko era planteatzerik ez bazegoen ere, unibertsitate mailan gogotsu heldu zion arazo honi, metodologia alternatiboak posible zirela egiaztatuz eta eraginkorrak ere bai.

Egun ikaslearen parte-hartzea bermatu beharrekoa dela inork ez du zalantzan jartzen eta metodologia mota hau lehen mailako tresna gisa erabiltzen da, besteak beste, ikasleen beharrei eta interesei erantzunez. Guzti honek —jakina— suposatzen du ikasleen inplikazio egiazkoa irakas-ikas prozesuan, irakasle / ikasle komunikazioan oinarrituz zein ikasleen artekoan eta subjektu zein taldearen sormen indarra zutabeetariko bat bezala azaltzen da.

Liburua zazpi ataletan dago egituratua; lehendabizikoan egungo Unibertsitatearen egoera azaltzen du: egoeraren argi-iluntasunak, beharrezko aldaketak, irakasleen prestakuntzaren beharra, aldaketen aurrean zergatik da bera hain egoskorra eta, nola ez, azken boladetan tinko lantzen ari den Europa mailan ezarri nahi den konbergentziaren erronkak. Bigarrenak irakasle eta ikaslearen papera eztabaidatzen du, ohiko ereduaren aurrean ikasteko era berri bat aldarrikatzen, egungo gizarteak eskatzen duenaren arabera.

Hirugarrenak ikasgelan du kokapena eta bertan ematen den dinamika aztergai; modu berezian talde dinamikaren inguruan sakondu nahi du, aldeko eta kontrako ezaugarriak agerian jarriz eta irakaslearen papera horien

aurrean. Komunikazioa (tipoak, irakats jardueraren ardatza...) eta motibazioa (zer da ikaslea gehien motibatzen duena? nola lortu motibatzea unibertsitateko ikasgela batean?) dira laugarrenaren gaiak.

Edukiak garrantzitsuak direla ukatzerik ez badago, nola ematen diren, hots, metodologia ere funtsezkoa da; izan ere, hurrengo atalaren muinean kontzeptu hau, definizioa, honen inguruko ezaugarriak, parte-hartzea bermatzen duen metodologiaren mugak... aztertzen dira; eta metodologia honetan taldearen sormenak ere izango du bere tokia.

Seigarrenean parte hartze aktiboan oinarritzen diren teknikak aztertzen dira: kontzeptua, motak, prozesuak... eta zazpigarrenak liburuaren ekarpenik praktikoenari helduko dio esanguratsua den izenburuarekin, hots, nola gauzatu parte hartzeko klase hauek: arrakastarako gakoak. Zalantzarik gabe atal mamitsu eta interesgarria eskaintzen dituen aukerak kontutan hartuz gero, are gehiago eranskinean biltzen dituen parte hartzeko hogeitarik aintzat hartuta.

Formalki ondo egituraturatutako liburu hau, atseginez irakurtzen da eta unibertsitateko irakasleok ziur egon gaitezke lerroon artean norberaren kasuistikak islatuta aurkituko dugula baita hauek modu egokiagoan planteatzeko alternatibak antzemango ditugula ere.

J. M.^a Mues

JASOTAKO LIBURUAK

KNIGHT, P.T. (2005)

El profesorado de Educación Superior. Madril: Narcea.